

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Jakinarazpena: haren bizitokia ezin jakinez, interesdunari jakinarazten zaio biztanleen udal erroldan ofizioz baja emateko espedientea abiarazi dela, 16011P-38/2016 zenbakikoa, bidegabeki erroldatuta egoteagatik

Administrazio egintza jakinaraztea Lorenzo González Vicente jaunari.

Erabaki hau ezin izan zaio jakinarazi interesdunari, ezin jakinik non bizi den. Beraz, Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkideari buruzko Legearen 59.5 artikuluan ezartzen duena betetzeko (30/1992 Legea, azaroaren 26koa), iragarki hau BOEn argitaratuta —eta aldez aurretik, aukerakoa delarik, ALHAOn eta udalaren iragarki taulan—, alkatetzaren 16/177P zenbakiko ebazpenaren jakinarazpena egiten zaio. Hona hemen hitzez hitz:

“2016ko uztailaren 6an, ebazpena eman zen (16/177P Dekretua). Zuri dagokizunez, hau dio:

Udalak jakin du, M. I.Y. M izeneko pertsonak 2016ko ekainaren 22an aurkeztutako eskabidearen bitartez —Ugarte kaleko 17. zenbakian eta 3. solairuko ezkerreko atean dagoen etxebizitzaren errentamendu kontratuaren titular gisa aurkeztu zuen idazkia—, Lorenzo González Vicente jauna bidegabeki dagoela erroldaturik biztanleen udal erroldan, ez delako egiaz bizi bizitoki horretan eta, hartara, urratu egiten dituela Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Arautegiaren 54. eta 68. artikuluetan ezarritako baldintzak (1690/1986 Errege Dekretu uztailaren 11koak onartu zuen arautegi hori, eta 2612/1996 Errege Dekretu abenduaren 20koak aldatu).

Udaltzainek egindako txostena aztertuta, ondorioztatzen da pertsona hori ez dela bizi bizitoki horretan.

Bat etorritik arautegi horren 72. artikuluan xedatutakoarekin eta Estatistika Institutu Nazionaleko lehendakariak eta Autonomia Erkidegoekin eta Toki Erakundeekin Eskumenak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiak 2015eko urtarrilaren 30ean elkarrekin emandako Ebazpenean xedatutakoarekin, zeinak jarraibide teknikoak ematen baitizkie udalei erroldaren kudeaketari buruz, eta, bereziki, arauz kanpoko erroldatzeagatik baja emateari buruzko atalean ezarritakoarekin, bai eta orokorki aplikatzekoa den gainerako legedian ezarritakoarekin ere, alkatetza honek, legez esleitutako ahalmenak baliatuz, honako hau xedatzen du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetzeko onartzea, eta espedientea abiaraztea ofizioz, ondoren aipatzen den pertsona honi baja emateko Amurrioko Udalaren biztanle erroldan, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik:

IZENA ETA DEITURAK:	AGIRIA
D. LORENZO GONZÁLEZ VICENTE	78.896.533-R

Bigarrena. Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea udalerrri honetan izan duen azken helbide ezagunean, hamabost eguneko epean alegatu eta egoki jotzen dituen agiriak eta frogak aurkez ditzan, udalaren biztanle erroldan zuzen erroldatuta dagoela egiaztatzeko, edo erroldan duen egoera erregularizatzeko, udal honi jakinaraziz helbidea aldatu duela edo egun zein udalerritan bizi den.

Jarduneko alkateak agindu eta izenpetzen du. Amurrio, 2016ko uztailaren 6a. Idazkari naizen aldetik fede ematen dut.

Jarduneko alkatearen eta idazkariaren izenpeak eta errubrikak, biak irakurtezinak.
Jakin dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dizut.”

Amurrio, 2016ko abuztuaren 23a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA